

IRIZAR TEKNOLOGIADUN SEGURTASUN SISTEMAK BIDAIARIANTZAT

Irizarrek bidaiarien segurtasuna bermatzeko bere teknologiadun sistema iraultzailea duten lehen autobusak egin ditu

MagicEye sistema da, Irizar taldeko Datik enpresak garatutako irtenbidea. Datik aitzindaria da gidatzeko laguntza, informazioa eta kontrola eskaintzen duten sistema teknologikoak sortu eta aurkezten.

Magic Eye laguntza sistema teknologiko aurreratua da; distrazio eta talka arriskua gutxitzen ditu ikusmen artifizialaren bidezko teknologiekin egoerak hauteman eta aurreikusten dituelako, eta beraz, gidatzea ziurragoa da.

Sistemak honako hauek ditu:

- *Oinezkoak, txirrindulariak eta motozikletak hautematen ditu*
- *Mugimenduan nahiz aparkatuta dauden ibilgailuak eta oztopoak hautematen ditu.*
- *Zirkulazio seinaleak hautematen ditu*
- *Segurtasun tarteak kalkulatu du*
- *Nahigabe egindako errail aldaketak hautematen ditu*
- *Abiadura mugen gainean oharra egiten du*
- *Eta garrantzitsuagoa dena, gidaria nekatuta edo arreta galdua dagoela hauteman eta abisatzen du.*

Nekea eta arreta falta hauteman eta abisatzea da elementu bereizgarria gainerako produktu konbentzionalekin konparatuta. Begien, betazalen eta buruaren mugimenduei begiratu eta gidaria mugimendu arriskutsuak egitera eraman dezaketen ekintza ez-ohikoak hautematea da helburua. Halakorik gertatuz gero gidaria ohartarazteko alarmak aktibatzen dira..

Sistemak hiru osagai ditu: kamara bat, prozesatzaile bat eta abisatzeko tresna. Abisua soinuak edo ikusteko aizan daiteke, edo biak batera aldi berean. Une honetan alerta mekanismo berezituagoak lantzen ari gara, eserlekuak dardar egitea, adibidez, hartara bidaiaria kez beldurtzeko alerta aktibatzen denean. Oso erraza da instalatzea eta bezeroaren beharretara egokitzeko aukera ematen du bukaera eta ikusteko abisuei dagokionez. Horrek agintemahaian edo autobusak kudeatzeko plataforman ezin hobeto txertatzea ekarriko luke.

Gainera, beste produktu konbentzional batzuen aldean lehiakortasun abantaila garrantzitsua du, gainerakoek gidaria bakarrik ohartarazten baitute. Irudiak grabatzeko eta alertak erregistratzeko zerbitzua ditu eta web plataforman baten



bidezko unitate zentral bat, ondorioak atera eta jasotako informazio guztia kudeatzen laguntzen duena. Horrela, egindako arau-haustek hauteman, ibilbide seguruena planifikatu eta gidatzeko ohiturak optimizatzen dira, besteak beste.

MagicEye flotak kudeatzeko irtenbide osoa da, beraz. Erregai aurreztu eta distrazio eta talka arriskua txikitzen ditu, eta ondorioz modu seguruago, eraginkorrago eta fidagarriagoan gidatzen da.

Pesa, La Unión eta Autocares Moreno dira haien autobusetan gailu hau erabili duten lehen bezeroak.

DATIK 2011tik da Irizar taldekoa eta ITS (Intelligent Transport Systems) sistemak eta trenbide nahiz errepideko garraioan segurtasuna eta eraginkortasuna areagotu eta kudeatzeko irtenbideak diseinatu eta instalatzen dituen enpresa da.